



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

V. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2023ko maiatzaren 17, 18 eta 19a
Donostia, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Kode-alternantziaren erabilera
euskara-gaztelania gazte
elebidunengan**

Mikel Pérez González

67-74 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.v.01.08>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Kode-alternantziaren erabilera euskara-gaztelania gazte elebidunengan

Mikel Pérez González

ELEBILABeko ikertzaile kontratatua

(Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila)

mikel.perezg@ehu.eus

Laburpena

Euskal gazteen hizkerarekin batera, azken urteetan kode-alternantzia (KA) fenomenoak arreta jaso du. Azterlan honen xedea da euskara-gaztelania gazte elebidunen KAren erabilera aztertzea eta horretan eragin dezaketen zenbait faktore identifikatzea: hiztunen lehen/etxeko hizkuntza (H1), euskara/gaztelania gaitasuna eta testuinguru soziolinguistikoa (jaiolekuaren arabera). Horretarako, KAren erabilera eta jarreretan sakondu nahian 2022an diseinatu nuen online galdetegitik jasotako erantzunak baliatu ditut, hain zuzen ere 18-30 urte bitarteko 244 euskara-gaztelania gazte elebidunenak. Emaitzek erakutsi zuten KAren erabilera oso zabalduta dagoela euskal gazteengan eta horretan gazteen H1ak, testuinguru soziolinguistikoak eta euskara/gaztelania gaitasunak eragiten dutela.

Gako-hitzak: Kode-alternantzia; gazte-hizkera; elebitasuna; hizkuntza-erabilera

Abstract

Along with the Basque youth language, the phenomenon of code-switching (CS) has been observed in recent years. The aim of this study is to analyze the use of CS in bilingual Basque–Spanish youth and to identify some factors that may influence it: the first language of the speakers (L1), the Basque/Spanish competition and the sociolinguistic environment (according to the place of birth). To do this, and in order to deepen the use and attitudes of CS, I have taken advantage of the answers received from the online questionnaire that I designed in 2022: 244 bilingual Basque-Spanish youth from 18 to 30 years old. The results showed that the use of CS is widespread among Basque youth and that L1, the sociolinguistic environment and the Basque/Spanish competition influence it.

Keywords: Code-switching; young language; bilingualism; use of language

0. Sarrera eta motibazioa

KA komunitate elebidunetan arrunta den hizkuntza-ukipen fenomeno da (Thomason, 2001) eta horrela definitu izan da: “elebidun batzuen gaitasuna bi hizkuntzen artean esfortzurik gabe alternatzeko edo txandakatzeko” (Bullock eta Toribio, 2009, 1. or.; itzulpena nirea da). Hona hemen euskara-gaztelania KAren adibide bat (Ibarra, 2011, 287. or.): Nengoen *alau del ambulatorio* yoateko. Azterlanak azterlan, KA fenomeno alboratua eta estigmatizatua (izan) da hizkuntzaren degenerazioaren edo hizkuntza ondo ez menderatzearen adierazle moduan ere hautema(te)n delako (Bullock eta Toribio, 2009).

Euskal Herrian ere KA aztergai (izan) da azkenaldian, gazte hizkeren inguruko lanak bezala. Hain zuzen ere, KA gazte hizkeraren ezaugarritzat hartzen da (Eusko Jaurlaritzza, 2016; Ibarra, 2011; Lantto, 2015). Euskaldunen KAren inguruko ikerketek fenomeno horren ezaugarri ezberdinak aztertu dituzte, besteak beste, zein helburu edo funtzioekin erabiltzen den (Muñoa, 2002; Ibarra, 2011), zer motakoa den eta zer ezaugarri gramatikal dituen (Ezeizabarrena eta Munarriz-Ibarrola, 2012; Parafita Couto et al. 2015) eta zer onarpen maila duen fenomenoak (Lantto, 2018). Hala, handik eta hemendik noizean behin bolo-bolo ibiltzen den eta oraindik ikerketa sakon eta zehatzak falta dituen fenomeno baten aurrean gaudenez, KAren erabileraren inguruan sakontzeko eta jasotako ebidentziak partekatzeko motibazioa da lan eta ibilbide honi hasiera eman izanaren erantzule.

1. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

KAren ikerketa hiru ikuspegitatik garatzen da nagusiki (Bullock eta Toribio, 2009; Gardner-Chloros, 2009): 1) Hurbilketa linguistiko-teorikotik KAren ezaugarri linguistikoak aztertzea da helburu nagusia. 2) Hurbilketa soziolinguistikoak KAn eragiten duten alderdi sozialak ditu jomugan. 3) Hurbilketa psikolinguistikoan KAren ekoizpena eta ulermena aztertzen da, aukera emanez ulertzeko zein mekanismo kognitibok gidatzen duten KAren ekoizpena, ulermena eta jabekuntza. Hurbilketa horietan guztietan funtsezkoa gertatzen da hiztun elebidunak ezaugarritzea. KA aztergai duten lanetan baliatu diren neurgaiak eta metodologiak ere askotarikoak dira (Gullberg et al., 2009; Munarriz-Ibarrola et al., 2018; Valdes Kroff et al., 2017).

Gutxi omen dira KA erabiltzen ez duten hiztun edo komunitate elebidunak eta, gainera, KA idatzizko zein ahozko komunikazioari dagokion ohiko praktika elebidunetako bat da (Ibarra, 2020). Halere, ez dirudi elebidun guztiek erabiltzen dutenik. Ikerketek erakutsi dute, bestalde, elebidun profilak eragina duela, modu batean edo bestean, KAn (Lantto, 2015; Mad'arová, 2020; Parafita Couto et al., 2015). Halaber, KA gaitasun-faltarekin lotu ohi denez, partaide askok haiek ez dutela egiten edota ez dela egin behar adierazten dute (Aморrortu et al., 2016). Beste batzuek, berriz, egoera informaletan, diskurtso estrategia bezala erabiltzen dutela onartzen dute.

Gauzak horrela, euskal gazteen KAren erabilerari buruzko ebidentzia bildu eta partekatu asmoz, euskara-gaztelania gazte elebidunen KAren erabilerari buruzko datu batzuk ekarri ditut lan honetara. Lan honen helburua, beraz, euskara-gaztelania gazte elebidunen KAren erabileran sakontzea da, zehazki, identifikatzea

gazteen H1ak, euskara/gaztelania gaitasunak eta testuinguru soziolinguistikoak zenbaterainoko eragina duten beren KAren erabileran. Hurrengoak izan ziren lan honetarako helburuei begirako hipotesiak: 1) gazteen KAren erabileran ez nuen espero testuinguru soziolinguistikoaren eragin esanguratsurik (Etxabe, 2005; Ibarra, 2020). 2) etxetik erdaldunek etxetik euskaldunek baino KA gehiago erabiltzea (Lantto, 2015, 2019; Amorrortu et al., 2016). 3) euskara/gaztelania gaitasunak eraginik ez izatea gazteen KAren erabileran (Poplack, 1980).

2. Ikerketaren muina¹

2.1. Diseinua

Datuak biltzeko *Encuestafacil* bidezko online galdetegi bat diseinatu nuen 2022an (Pérez, 2022), eta hori osatzeko, hainbat elebitasun galdetegi estandarizatu aztertu nituen. Galdetegia 4 bloketan egituratutako 45 galderek osatzen dute (1. taula). Galdera horien bidez bilatzen da: 1) elebidunen profil psiko-soziolinguistikoa eta 2) elebidunen KAren erabilera eta jarrera aitortuak.

1. taula: online galdetegiaren atalak, galdera-motak eta helburuak. Iturria: egileak egina².

GALDERAK	LEHEN ATALA	BIGARREN ATALA	HIRUGARREN ATALA	LAUGARREN ATALA
	10 galdera	12 galdera	10 galdera	13 galdera
MOTAK	Demografikoak	Euskara eta gaztelaniaren jabeakuntza, euskara eta gaztelaniaren erabilera eta euskara eta gaztelaniarekiko atxikimendua	Euskararen eta gaztelaniaren gaitasuna eta euskara titulazioa, euskararen eta gaztelaniaren erabilera/erregistro mota eta euskara/gaztelaniari buruzko (auto)pertzepzioa	“Beste” gazteei buruzko KAren erabilera ustea, KAren erabilera aitortua, KArik ez erabiltzeko gaitasuna, KArekiko jarrerak, KAren erabilera arrazoiak
HELBURUA	Parte hartzaileen adina, generoa, ikasketa maila, lan egoera... bezalakoak jasotzea	Parte hartzaileen elebidun profila zehaztea	Parte hartzaileen hizkuntza mota/kompetentzia edo gaitasun aitortua eta euren zilegitasuna (autopertzepzioa) biltzea	KAren erabileraren zein jarreraren inguruko informazioa identifikatzea

2.2. Parte-hartzaileak

18-30 urteko 244 parte-hartzailearen datuak jaso eta aztertu nituen (2. taula). Parte-hartzaileen artean testuinguru soziolinguistiko desberdinetakoak zeuden, eta H1ari dagokionez profil desberdineko parte-hartzaileak. Hizkuntza-gaitasun aitortuari dagokionez, oro har, euskaraz gaitasun handiagoa dutenak jaso ziren.

¹ Lan honetan zehar KAz hitz egitean zehazki hurrengoari egiten zaio erreferentzia: (nagusiki) euskaraz egin bitartean gaztelania txertatzeari.

² Galdetegiak eta lanak EHUko Gizakiekin lotutako ikerketarako Etika Batzordeko oniritzia jaso zuen (M10/2022/103 kodea). Parte-hartzaileek 15' eta 30' bitarteko tartean erantzun zioten galdetegiari.

2. taula: ikerketako parte-hartzaileen inguruko zehaztasunak. Iturria: egileak egina.

		<i>N (%) edo \bar{X}</i>		<i>N = 244</i>
ADINA		18-24 urte	138 (% 56,60)	
		25-30 urte	106 (% 43,40)	
GENEROA		Emakumea	144 (% 59)	
		Gizona	95 (% 38,90)	
		Ez-binarioa	5 (% 2)	
JAIOLEKUA³	Euskaldun gutxiagoko eremuak	1. gunea	11 (% 4,50)	131 (% 53,70) ⁴
		2. gunea	120 (% 49,20)	
	Euskaldun gehiagoko eremuak	3. gunea	97 (% 39,80)	107 (% 43,90)
		4. gunea	10 (% 4,10)	
	H1		H1 eusk	105 (% 43)
		H1 gazt	49 (% 20,10)	
		2H1	89 (% 36,50)	
		Beste bat	1 (% 0,40)	
HIZKUNTZA GAITASUNA (1 = maila apala; 5 = goi maila)	EUSKARAZ	GUZTIRA	4,60	
	GAZTELANIAZ	GUZTIRA	4,43	

Datuen analisi estatistikoak egiteko *SPSS* programa erabili nuen, eta honako test hauek baliatu: Chi karratua –Pearson eta Fisher–, Kruskal-Wallis, U de Mann-Whitney, Wilcoxon, maiztasun taulak, kontingentzia taulak, Pearson eta Spearman korrelazioak, T-testa eta Anova.

3. Emaitzak


3.1. KAren erabileran testuinguru soziolinguistikoaren eragina

Gazteen % 77k ($n = 188$) aitortu zuen KA erabiltzen duela egoera komunikatiboren batean (1. irudia). Testuinguru soziolinguistikoaren arabera, aldea ikusi zen: euskaldun gutxiagoko eremuetakoen % 86,3k ($n = 113$) erabiltzen du KA eta euskaldun gehiagoko eremuetakoen % 65,4k ($n = 70$) ($X^2(1, N= 238) = 13,24, p < 0,001$)⁵.

³ 1. gune soziolinguistikoan biztanleriaren % 20 baino gutxiago da euskalduna, 2. gunean biztanleriaren % 20-50 bitartean da euskalduna, 3.ean % 50-80 eta 4.ean % 80 edo gehiago (Eusko Jaurlaritzaren et al., d.g.).


⁴ Batuketa ez da $n = 244$, izan ere, parte hartzaile guztien erantzunak ezin izan dira sailkatu eremuetako batean, dela Euskal Herritik kanpo jaiotakoak, edo beste kasuistika batzuegatik.

⁵ Irudietan esanguratasun maila adierazteko, izartxoak erabili dira hurrengo p balioen arabera : * $p < 0,05$; ** $p < 0,01$; *** $p < 0,001$.



1.irudia: gazteen KAren erabilera orokorra (eta testuinguru soziolinguistikoaren eragina). Iturria: egileak egina.


Bestalde, egoera komunikatiboei dagokienez, gazteek adierazi zutenek, kalean/jai giroan erabiltzen zuten gehien KA. Hor ere testuinguru soziolinguistikoaren araberrako alde ageri zen (2. irudia): euskaldun gutxiagoko eremuetan KA gehiago erabiltzen dute kalean/jai giroan beste eremuarekin alderatuta (% 82,4 vs % 57,9; $X^2(1, N= 238)= 17,321, p < 0,001$).



2. irudia: gazteen KA erabilera kalean/jai giroan. Iturria: egileak egina.

3.2. KAren erabilera gazteen H1aren eragina


3. irudian ikusten denek, gaztelania H1 dutenek euskara H1 dutenek baino gehiago erabiltzen dute KA (% 89,80 vs % 64,80; $X^2(1, N= 154)= 9,33, p = 0,0023$), eta baita ere aldibereko elebidunek H1 euskaldunek baino (% 85,40 vs % 64,80; $X^2(1, N= 194)= 9,67 p = 0,0019$).



3. irudia: gazteen KA erabilera H1aren eragina. Iturria: egileak egina.

3.3. KAren erabileran gazteen euskara/gaztelania gaitasunaren eragina

Gazteek gaztelaniaz duten gaitasunaren eta KAren erabileraren artean erlazio zuzena eta baxua dago (Spearman ($N=244$)= 0,238, $p < 0,001$): gazteen gaztelania gaitasunak gora egin ahala KAren erabilerak ere gora egiten du, eta alderantziz. Alabaina, gaitasunaz beste era batera galdetuta, emaitzak bestelakoak dira (4. irudia): euskara hutsean egiteko gaitasunari erreparatuz, KA gehien euskara hutsean asko kostata egiten dutenek erabiltzen dute, eta gutxien euskara hutsean egiteko gai direnek. Gaztelania hutsean egiteko gaitasunari dagokionez, gaztelania hutsean egiteko gaitasun handiena dutenek erabiltzen dute KA gehien, eta, gaztelania hutsean egiteko gaitasunik ez dutela uste dutenek erabiltzen dute KA gutxien.



4. irudia: KAren erabileran euskara/gaztelania hutsean egiteko gaitasunak duen eragina. Iturria: egileak egina.

4. Ondorioak

Lan honek datu enpiriko berriak eskaini ditu euskara-gaztelania gazteen KAren erabileraz eta horretan eragiten duten hiru aldagai psiko-soziolinguistikoez. Gazte gehienek KA erabiltzen badute ere, KA gehien H1 gaztelania dutenek, euskaldun gutxiagoko eremukoek eta gaztelania gaitasun handiagoa dutenek erabiltzen dute. Edonola ere, parte-hartzaileak euskara-gaitasun handikoak dira eta beraz, aurrera begira, komeni litzateke lagina zabaltzea.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Lagina zabaltzeaz gainera, interesgarria litzateke emaitza hauek “erabileraren errealekoekin” edota ariketa ez- (hain) metalinguistikoen bidez jasotako emaitzekin kontrastatzea zein uztartzea. Bestalde, KAren erabilerarik aitortzen ez dutenak gehiago araka daitezke. Aurrerantzean, galdetegi bereko erantzunetatik atera gabe, aztertu barik geratu direnei ere heldzea interesgarria izan daiteke. Adibidez, azter liteke parte-hartzaile gazteen testuinguru soziolinguistikoa araberako KAren erabilerarekiko jarrera baina KA erabiltzen dutenen testuinguru soziolinguistikoa eta egoera komunikatiboak ere aintzat hartuz. Amaitzeko, hausnarketa metodologikoa egiteko parada ere eman dit lan honek; esate baterako, aipagarria iruditzen zait galdetegi hasi eta bukatu gabeko parte-hartzaile kopuru handia ($n = 421$), hausnartu beharko nuke zer arrazoi egon daitekeen atzean (irauten luzeegia, konplexutasuna...).

6. Erreferentziak

- Amorrortu, E., Ortega, A., Goirigolzarri, J. eta Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Bullock, B. E., eta Toribio, A. J. (eds.). (2009). *The Cambridge handbook of linguistic code-switching*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511576331>
- Eusko Jaurlaritzak. (2016). *Gu Gazteok, 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzan Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua-Euskarabidea, Euskararen Erakunde Publikoa, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia. (d.g.)⁶. *Euskararen Adierazle Sistema (EAS)* [Datu basea].
- Etxabe, A. (2005). *Kode-alternantzia lagun arteko gazte-hizkeran*. [HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondokoko Amaierako Lana].
- Ezeizabarrena, M. J. eta Munarriz-Ibarrola (2012). Orden de palabras en los enunciados mixtos (euskera-castellano) de bilingües típicos y atípicos. In Cestero Mancera, Ana M. Molina Martos, Isabel eta Paredes García, Florentino (eds.), *La lengua, lugar de encuentro. Actas del XVI Congreso Internacional de la ALFAL (Asociación de Lingüística y Filología de la América Latina)*. Alcalá de Henares: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Alcalá. ISBN: 978-84-8138-771-1; CD: 3893-3902.
- Gardner-Chloros, P. (2009). *Code-switching*. Cambridge university press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511609787>
- Gullberg, M., Indefrey, P., eta Muysken, P. (2009). Research techniques for the study of code-switching. In B. Bullock & A. Toribio (Eds.), *The Cambridge Handbook of Linguistic Code-switching* (Cambridge Handbooks in Language and Linguistics, pp. 21-39). Cambridge: Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511576331.003>
- Ibarra, O. (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Ibarra, O. (2020). “Hizkuntza praktikak «online», Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle euskaldunen artean”. *Revista internacional de los estudios vascos= Eusko ikaskuntzen nazioarteko aldizkaria= Revue internationale des études basques= International journal on Basque studies, RIEV*, 65(1), 34-71.
- Lantto, H. (2015). *Code-switching in Greater Bilbao: A bilingual variety of Colloquial Basque*.

⁶ d.g = datarik gabe.

- Lantto, H. (2018). New Basques and code-switching: Purist tendencies, social pressures. In Smith-Christmas, C., Ó Murchadha, N., Hornsby, M., Moriarty, M. (eds). *New speakers of minority languages*, 165-187. Palgrave Macmillan, London. https://doi.org/10.1057/978-1-137-57558-6_9
- Mad'arová, S. (2020). Use and perception of code switching by students and instructors in the second language classroom in the US. *Onomazein*, (48), 150–177. <https://doi.org/10.7764/onomazein.48.07>
- Munarriz-Ibarrola, A., Couto, Parafita Couto, M. C., eta Wyngaerd, E. V. (2018). Methodologies for intra-sentential code-switching research. *Linguistic Approaches to Bilingualism*, 8 (1), 1-4. <https://doi.org/10.1075/lab.17082.mun>
- Muñoa, I. (2002). Zergatik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean? Kodealdaketaren funtzio pragmatikoak. *Bat Aldizkaria*, 42. zk, 53-63. or.
- Parafita Couto, M. C., Munarriz-Ibarrola, A., Epelde, I., Deuchar, M. eta Oyharçabal, B. (2015). Gender conflict resolution in Spanish–Basque mixed DPs. *Bilingualism: Language and Cognition*, 18(2), 304-323. <https://doi.org/10.1017/S136672891400011X>
- Pérez, M. (2022). Kode-alternantziaren erabilera eta jarrerak euskara-gaztelania elebidun gazteengan. [Master Amaierako Lana, UPV/EHU].
- Poplack, S. (1980). Sometimes I'll start a sentence in Spanish y termino en español: Toward a typology of code-switching. *Linguistics*, 18, 581-616. <https://doi.org/10.1515/ling.1980.18.7-8.581>
- Thomason, S. G. (2001). *Language contact: An introduction*. Washington, D.C.: Georgetown University Press.
- Valdes Kroff, J. R., Dussias, P. E., Gerfen, C., Perrotti, L., eta Bajo, M. T. (2017). Experience with code-switching modulates the use of grammatical gender during sentence processing. *Linguistic Approaches to Bilingualism*, 7(2), 163-198. <https://doi.org/10.1075/lab.15010.val>

7. Eskerrak ematea eta oharrak

Lan hau Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia masterrean aurkeztutako MALetik (Pérez, 2022) erauzitako datu aukeratu batzuekin osatu da. MALa burutzeko Arabako Foru Aldundiak eta UPV/EHUK sortutako Henrique Knörr beka jaso nuen 2021eko deialdian. Era berean, ikerketa hau hein batean Eusko Jaurlaritzako finantziarioari esker ere garatu da (IT-983-16 eta IT1627-22) ELEBILAB ikertaldean: bihoakie nire esker ona. Eskerrak eman nahi dizkiet, halaber, Iñaki Garcia irakasleari galdetegia diseinatzeko eta analisi estatistikoak egiteko emandako laguntzagatik, bide honetan guztian zehar bidelagun izan dudana. Amaia Munarriz zuzendariari eta Ainhoa Pardinari, beti laguntzeko prest egon delako. Azkenik, nire esker ona ikerketa honetako protagonista diren parte-hartzaile guztiei.